

# Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren Politika (GEK)

1. bertsioa  
2022ko ekaina  
Publikoa



# Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren Politika (GEK)

## Testuingurua, helburua eta aplikazio-eremua:

Bureau Veritas konpainiak konpromiso sendoa du **Gizarte Erantzukizun Korporatiboarekin (GEK)**; gure balio absolutu eta funtsezkoen baitan dago, eta gure DNA osatzen duela esan genezake.

Bureau Veritas Espainiaren eta Portugalen (aurrerantzean SWE) GEK politika Bureau Veritasen politika, kode, printzipio eta balio korporatiboetan oinarritzen da. Jokabide arduratsurako jarduketa-esparru komun bat ezartzen du, garapen jasangarria lortzeko ekintzak ezartzeko helburuarekin. Horretarako, ingurumen, gizarte eta gobernu oneko konpromisoak kudeatzen eta txertatzen ditu bere interes-talde guztiekin, konpainiaren finantza-estrategiarekin bat etorritik.

Politika hori aplikatzen zaie Bureau Veritas SWEn negozio-lerro eta delegazio guztiei.

## Estrategia:

Bureau Veritas SWEn, goi-zuzendaritzak izendatutako aholku-batzorde batek sustatzen eta gauzatzen du GEK. Batzorde hori erakundeko arlo eta erakunde operatibo bakoitzeko ordezkari batek osatzen du, eta Batzorde Betearazleko pertsona bat du buru.

Politika hori ezartzeko eta garatzeko plangintza, neurriak eta ekintzak Bureau Veritas SWEn GEKren plan zuzentzailean jasotzen dira. Bertan, barneko nahiz kanpoko gaiak hartzen dira kontuan testuingurua finkatzeko, baita alderdi interesdunen beharrak eta itxaropenak ere, landu beharreko arriskuak eta aukerak hautemateko.

Jarduketa horien helburua da erakundearen kudeaketa-sistema arduratsua eta jasangarria bermatzea, baita aurreikusitako emaitzak lortzea, lortu nahi diren ondorioak areagotzea, nahi ez direnak murriztea edo prebenitzea, eta etengabeko hobekuntza finkatzea ere, hori guztia indarrean dagoen araudiarekin eta aplikagarriak izan daitezkeen gainerako baldintzekin bat etorritik.

## Interes-talde nagusiekin ditugun konpromisoak:

Guztiz lerrokatuta gaude Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta Munduko Itunaren printzipioekin (Munduko Itunaren Espainiako Sarearen bidez atxikita gaude). Horregatik, Bureau Veritas SWE enpresa arduratsuen talde bat izatea nahi dugu Espainian eta Portugalen, eta enpresa horiek guztiz konprometituta egongo dira inpaktuen kudeaketarekin, ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-balantze hirukoitzetik.

Horrela, Bureau Veritas SWEk hainbat konpromiso ditu bere interes-taldeekin, ingurumen, gizarte eta gobernu onaren irizpideak jorratzeko helburuarekin. Horiek modu zehatzagoan kudeatzen dira hainbat politika, prozedura, kode eta akordioaren bidez, *Konfiantzazko Mundu bat Eraikitzeko* gure asmoa sendotuz:

- **Langileak:** gure enpresa-kulturaren funtsezko elementuak dira berrikuntza, ongizatea, aniztasuna, berdintasuna, inklusioa, enpresa-etika, independentzia, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, osotasuna, segurtasuna, osasuna,

ongizatea eta prestakuntza. Elementu horiek gure jarduera garatzeko aukera ematen digute, enpresaren balioak Bureau Veritas osatzen duten pertsonen balioekin lerrotatuz. Bureau Veritas osatzen duten pertsonak osatzen dute gure funtsa. Etniak, koloreak, ageriko desberdintasunek, erlijioak, generoak, ondareak, estatus sozioekonomikoak, adinak, sexu-orientazioak, egoera zibilak, osasun-egoerak, desgaitasunak, iritzi politikoak edo genero-identitateak gure aberastasuna areagotzen dute, etengabeko sormena garatzeko aukera ematen duen eta gure enpresa-estrategia sustatzen laguntzen digun lankidetzaren ingurune bat sustatuz eta eraikiz.

- **Gizartea:** balantze hirukoitzaren ikuspegitik eta *Business to Business to Society* enpresa gisa, uste dugu gure zuzeneko nahiz zeharkako inpaktuak behar bezala kudeatu, neurtu eta ebaluatu behar direla, horrela, etengabeko hobekuntza bilatuz, eta ez gure ekintzen, produktuen eta zerbitzuen bidez bakarrik, definitzen gaituzten balioen bidez baizik.
- **Bezeroak, sektorea, merkatua eta lehia:** kalitatea, bikaintasuna, berrikuntza, inklusioa, independentzia, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna eta osotasuna, konfiantzaren oinarritzko elementuak izanik, gardentasunarekin eta aniztasunarekin batera, gure jarduketan eta zerbitzuen oinarria dira, eta horiek erantzuten diegu gure bezeroen beharrei eta interesei.
- **Ingurumena:** ingurumen-inpaktuak kontrolatzea funtsezko pieza bat da gure etorkizunerako eta gure Planetaren etorkizunerako. Horregatik, ezinbestekoa da ingurumena babestearekin lotutako gidalerro guztiak finkatzea, eta horiek gure estrategian sartzen ditugu. Horrela, baliabideen kudeaketa arduratsua, biodibertsitatearen kontserbazioa eta klima-aldaketa arintzea sustatzen dugu, eta ingurumenean eragina izan dezakeen inpaktu oro murrizteko ekintzak finka ditzakegu, aldi berean gure jardueren eraginkortasuna optimizatuz.
- **Gobernua eta agintari publikoak, egiaztatze-erakundeak eta agintaritzak eskuduna, bankuak:** entsegu-, ikuskapen- eta ziurtatze-zerbitzuetan mundu-mailako liderra izanik, gure eragiketetan funtsezko elementuak dira bikaintasuna, gardentasuna, independentzia, inpartzialtasuna eta osotasuna, baita aplikatu beharreko araudia eta legeria betetzea, fiskalitate arduratsua eta komunikabide sendoak ere; izan ere, horiei esker gure negozioaren jasangarritasuna eta etorkizuna ziurta ditzakegu.
- **Bazkide komertzialak, kontratistak, hornitzaileak, salmenta-bitartekariak, baterako enpresak eta bestelako kolaboratzaileak:** gure jarduketa guztietan lehentasunezkoak dira giza eskubideak, lan-printzipioak, laneko segurtasuna eta osasuna betetzea eta babestea, ustelkeriaren aurkako borroka eta ingurumenaren babesa. Beraz, gure inpaktuekin konprometitu, eta gure ekintzen erantzukizuna indartuz —gure merkataritza-harremanen eta hornidura-katearen bidez—, jardunbide egokiak eta erosketa arduratsuak sustatzen ditugu.

## Komunikazioa eta elkarrizketa:

Gardentasuna, GEK osatzen duen eta gure etika, konfiantza eta erantzukizuna sendotzen dituen printzipioa, argi eta garbi islatzen da gure jardunbideen hedapenean (hainbat tresnaren bidez), gure politika, prozedura, kode eta akordioetan, eta gure jasangarritasun-memorian; memoria hori urtero argitaratzen da, eta gure interes-talde guztientzat eskuragarri dago gure webguneetan ([Espainia](#) eta [Portugal](#)).

## Onarpena:

GEK eta Jasangarritasun Batzordeak egindako Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren Politika hori Bureau Veritas SWEko Batzorde Betearazleak onartu zuen 2022ko ekainaren 8ko bilkuran, eta egun horretan bertan sartu zen indarrean.

Bertrand Martin

Bureau Veritas SWEko lehendakaria